

## ZINEMA MUSIKATUZ



### **GIDA DIDAKTIKOA**

**Zenbait filmen JSB langai hartuta**

Idea, kontzeptua eta gidoia: Javier Irigoien

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren eskaria. 2017ko otsaila

## SARRERA

Gida didaktiko honek proposamen irekia izan nahi du, helburu bikoitza lortzeko: batetik, ikaslearen interesa pizteko kontzertu-egunaren aurretik, eta, bestetik, egun horretan entzundakoa lantzen jarraitzeko.

Proposamen honek ikuspuntu jakin eta praktiko batetik heldu nahi dio zinema-musikari. Horregatik, hemen ez duzue aurkituko ez zazpigarren artearen generoei buruzko informaziorik, ez zinema-garaiei edo aktore ezagunei buruzko informazio bibliografikorik. Hori guztia baliotsua gerta liteke gida honen ataletan jorratutakoa testuinguruan kokatzeko, eta, hala, espero bezala komenigarri baderitzozue, zuen esku utziko dugu beharrezko informaziora hurbiltzeko lana egitea.

Proposamenen artean, sormenezko jarduera bat aurkituko duzue emozioen esparrua berariaz lantzeko. Eta espresuki aipatu nahi dut jarduera hori aurrez; izan ere, lanketa horrek kontzertu-egunean bertan izango du eragina.

Helbide elektronikoko bat sortu dugu propio, ekimen honekin lotuta: [zinemamusikatuz@gmail.com](mailto:zinemamusikatuz@gmail.com) eta, zer esanik ez, atsegin handiz erantzungo dizuet horren bidez.

Seguruenez, zuen eskolako musika-gelan izango duzue modua gida honetan aipatzen diren soinu-bandetako musika-piezak eskuratzeko. Iradokizun gisa, [www.deezer.com](http://www.deezer.com) webguneak kalitate handiko audioak jartzen ditu denon eskura bere doaneko bertsioan.

## ENTZUMENA

Film bati musika jartzeko prozesuan murgilduta, konpositoreak kontuan hartu behar du zein generotakoa den filma eta zein funtzio esleitu dion zuzendariak eszena bakoitzari gidoian.

1895ean sortu zen zinema, eta, hasiera batean, filmek ez zuten soinu-bandarik; zinemaren aro mutua deitzen zaio aro horri.

Zinemaren eta musikaren arteko lehen harremanaz aritzeko, zinema mutuaren garaira jo behar dugu: orduan hasi ziren musikariak (hasieran, bakarra izan ohi zen) eramaten emanaldian bertan zuzenean aritzeko, irudiei soinua eransteko, inprobisazio bidez eszenak girotu eta indartzeko. Zenbait historialariren ustez, emanaldia eta ikusleak girotzeko ez ezik, proiektagailuek ateratzen zuten zarata disimulatzeko baliatzen zen musika zuzenean interpretatzea.

Arrazoiak arrazoi, zinema-aretoen jabeak musikari-talde txikiak kontratatzen hasi ziren, esenez eszena inprobisatzen zutenak, eta, hala, haiek hasi ziren gaur egun zinema-musika deitzen dugun kontzeptu horren lehen oinarriak jartzen:

- ✓ Erritmo azkarrak, pertsekuzio-eszenetan
- ✓ Soinu grabeak, misterio-giroko eszenetan
- ✓ Melodia erromantikoak, maitasun-eszenetan

Denboraren poderioz, zinema-musika asko garatu eta espezializatu da honako eginkizun hauetan:

- ✓ Giro zehatzak sortu ditzake, atmosfera jakinak, filmaren izaeraren arabekoak.
- ✓ Musika soinu-atzealde gisa senti dezagun lortu dezake: musikak eszena lagundu behar du, hari protagonismoa kendu gabe.
- ✓ Pertsonaiaren ezaugarri bihur daiteke: leitmotiv-a erabiliz, konpositoreak melodia jakin bat lotzen dio pertsonaia bakoitzari, eta horrek ezaugarrituko du haien agerraldi oro.
- ✓ Egoerak eta gertakizunak nabarmendu ditzake: musikak bildu egiten ditu eszenak, eta nabarmendu.
- ✓ Musika-baliabideak aplikatu ditzake: erritmo motak eta musikaren intentsitateak baldintzatu egin dezakete ikusleak eszena bat nola antzeman.
- ✓ Eszenei aurrea hartu diezaieke, haiek iragarri: musika baliatu daiteke ikusleari sentiarazteko zer gertatuko den ondoren.
- ✓ Eszenak zehatz deskribatu ditzake: bide hori oso jorratuta dago animaziozko eta abenturazko filmetan, non musikak eta irudiaren mugimenduak bat egiten baitute.

Ondoren azalduko ditugun jarduerak lantzeko proposamen gisa, beheko taulan zenbait garai eta estilotoako filmen zerrenda bat duzue. Musika-pieza horietako batzuk kontzertu-egunean entzungo ditugu.


Bestalde, YouTubeko esteka batzuk erantsi ditugu, musika-pieza bakoitzari dagokion filmeko aurrerakina eta eszenak ikus ditzazuen, bai eta orkestra sinfoniko batek musika-piezas egindako interpretazioaren bideoa ere.

Azkenik, musika-pieza horietako batzuen audioak ondoren proposatzen diren esteka hauetan aurkituko dituzue eta MIDI artxiboak berriz drive esteka honetan:

<https://drive.google.com/open?id=1Lrsq0FsPiPdN19dxZnWB-aRMqJJPDP>

FILMA	INTERPRETAZIOA	AUDIOA	MIDI
<b>LOS 7 MAGNÍFICOS / ZAZPI MAGNIFIKOAK</b>			
<a href="https://www.youtube.com/watch?v=ZFFKaf_wmE">https://www.youtube.com/watch?v=ZFFKaf_wmE</a>	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=2UKxlc9jV1Y">https://www.youtube.com/watch?v=2UKxlc9jV1Y</a>	Audioa	Midi
<b>REGRESO AL FUTURO / ATZERA ETORKIZUNERA</b>			
<a href="https://www.youtube.com/watch?v=wMoNrEvGBLg">https://www.youtube.com/watch?v=wMoNrEvGBLg</a>	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=DAxv8_EqXQA">https://www.youtube.com/watch?v=DAxv8_EqXQA</a>	Audioa	
<b>TIEMPOS MODERNOS / GARAI MODERNOAK</b>			
<a href="https://www.youtube.com/watch?v=4N2tnP1sYpY">https://www.youtube.com/watch?v=4N2tnP1sYpY</a>		Audioa	
<b>ZIPI Y ZAPE Y EL CLUB DE LA CANICA / ZIPI ETA ZAPE ETA KAPITANAREN KLUBA</b>			
<a href="https://www.youtube.com/watch?v=UjOMESITXd4">https://www.youtube.com/watch?v=UjOMESITXd4</a> (+1h17'37'')	<a href="http://www.deezer.com/album/7293772">http://www.deezer.com/album/7293772</a>	22. audioa	
<b>ZIPI Y ZAPE Y LA ISLA DEL CAPITÁN / ZIPI ETA ZAPE ETA KAPITANAREN IRLA</b>			
	<a href="http://www.deezer.com/album/13619883">www.deezer.com/album/13619883</a>	7.,13.,19.,20. audioak	
<b>UN MONSTRUO VIENE A VERME / MONSTRUO BAT DATORKIT BISITAN</b>			
	<a href="https://www.deezer.com/es/album/136157392">https://www.deezer.com/es/album/136157392</a>	4. Audioa	
<b>EL GOLPE / LAPURRETA</b>			
<a href="https://www.youtube.com/watch?v=YfR2KxY-H_8">https://www.youtube.com/watch?v=YfR2KxY-H_8</a>		Audioa	Midi
<b>LOS GONNIES / GOONIEAK</b>			
<a href="https://www.youtube.com/watch?v=3IKAk4DhTWE">https://www.youtube.com/watch?v=3IKAk4DhTWE</a> (+1'42'')	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=gitkXM994QE">https://www.youtube.com/watch?v=gitkXM994QE</a>	Audioa	
<b>MISIÓN IMPOSIBLE / EZINEZKO MISIOA</b>			
<a href="https://www.youtube.com/watch?v=qbg99ykA2bk">https://www.youtube.com/watch?v=qbg99ykA2bk</a>	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=vccYZjRvJOM">https://www.youtube.com/watch?v=vccYZjRvJOM</a>	Audioa	
<b>FORREST GUMP</b>			
<a href="https://www.youtube.com/watch?v=bbua6BEHXIA">https://www.youtube.com/watch?v=bbua6BEHXIA</a> (+0'00 -2'25'')	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=1ivlluu4GSo">https://www.youtube.com/watch?v=1ivlluu4GSo</a>	Audioa	
<b>TITANIC / TITANIK</b>			
	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=kajVOCDrmnM&amp;list=RDkajVOCDrmnM#t=5">https://www.youtube.com/watch?v=kajVOCDrmnM&amp;list=RDkajVOCDrmnM#t=5</a>	Audioa	Midi

Ezagutzen dituzue musika-pieza hauek? Ausartuko al zarete kantatzen, ahapeka bada ere?



### Jarduerak

#### 1. Konparazio-taula bat erabiliz:

- Entzun arretaz audioa, irudien laguntzarik gabe, eta adierazi zer funtzio zehatz betetzen duen bakoitzak.
- Entzun audioa jatorrizko irudia ikusi bitartean, eta tempoa edo/eta tesiturak aldatu, “nahierara” egindako konposizio zinematografikoaz jabetzeko.
- Behin funtzioak ondo zehaztuta, entzun berriz musika-piezak haien irudien laguntzaz.
- Egin konparaketak kontuan hartuta zein garaitan konposatu ziren musika-piezak: antzekotasunak adierazi.
- Lortu informazioa konpositoreei buruz: estiloari dagokionez, zer antzekotasun eta zer alde daude haien artean?
- Zenbait film hartu, eta nahastu irudiak eta musika-piezak: adierazi zer gertatzen den.

## 2. **Musikograma bat erabiliz:**

- Identifikatu instrumentu-planoen segida.
- Identifikatu soinu-plano bakoitzean agertzen diren instrumentuak edo instrumentu-familiak.
- Saiatu musika lotzen soinu-bandan islatzen diren beste garai batzuetako musika generoekin.
- Erreparatu tempoaren uneei, baita erritmo- eta ostinato-aldaketei ere.
- Ohartu zein unetan agertzen den melodia.
- Erreparatu zer lotura dagoen soinu-planoen aldaketen eta dinamikaren artean.

## 3. **Musika-pieza interpretatzea helburu, gelako instrumentuak baliatuz edo/eta ikasle instrumentisten laguntzaz:**

- Aztertu tempoak, erritmoa eta tonalitatea.
- Aurkitu eszena bakoitzean sekuentziaz sekuentzia agertuko den leitmotiv nagusia, edo filmeko gai jakinak bereiziko dituztenak.
- Idatzi eta interpretatu melodia.
- Jolastu musikarekin: aldatu tempoak eta dinamikak.
- Interpretatu musika-pieza akonpainamendu soil batez.
- Egin karaoke gisako akonpainamendua proposatutako soinu-bandeia.
- Kendu ahotsak, instrumentazioak banan-banan entzuteko.

## **KONPOSITOREA**

Film baten soinu-bandak berebiziko garrantzia du haren azken emaitzan. Beti pentsatu izan dut konpositorearen lana ez dela behar bezala ezagutzen, eta, egia esan, konpositore ezagunen kasuan ere, oso aukera gutxi dugu jakiteko nola egiten duten lana, zer egiten duten inspiratzeko, zerk eramaten dituen instrumentu jakin baten edo beste baten alde egitera eszena baten aurrean, e.a.

Kontzertu-egunean, besteak beste, Fernando Velázquez konpositore getxotarraren pieza batzuk entzungo ditugu. Nahi izanez gero, informazio ugari aurkituko duzue haren ibilbideari buruz; hemen besterik gabe gogorarazi nahi dut berak konposatu dituela, besteak beste, “Zipi eta Zape eta kapitainaren irla”, “Ezinezkoa” eta “Munstro bat datorkit bisitan” filmetako soinu-bandak.

## **Jarduera**

Nire ustez, ikasleek aukera paregabea izango dute Fernandori galderak egiteko; zinema-musika konposatzearekin lotutako galderak, betiere.

Hasteko, hona hemen galdera-proposamen batzuk:

- Noiz erabaki zenuen zinema-musika idaztea?
- Nola egiten diozu aurre sormen-lan berri bakoitzari?
- Zer gustatzen zaizu gehien eta zer gutxien sorkuntza-prozesuan?
- Musika sortzeko garaian, ba al duzu instrumentu-familia kutunik zinema edo eszena-estilo jakinetarako?
- Ba al duzu inspiratzen laguntzen dizun jarduera edo hobby berezirik?
- Ba al duzu zinema-konpositore kutunik?
- Publizitaterako musika konposatzen duzu?

Bidali galderak –taldearen izenean bada, hobe– [zinemamusikatuz@gmail.com](mailto:zinemamusikatuz@gmail.com) helbide elektronikora, eta geuk helaraziko dizkiogu Fernandori.

Normala denez, hainbat galdera kontzertua entzun ondoren sortuko dira; horregatik, kasu honetan, **martxoaren 10era** arte luzatuko da galderak bidaltzeko epea.

Jarduera honen osagarri gisa, beste ariketa bat proposatuko dizuet konpositorearen figura hobeto ezagutze aldera. Horretarako, zinemarako soinu-bandak egin dituzten historiako konpositorerik ezagunenak peskizan jarriko gara: zein garaitakoak diren, zein filmetan aritu diren, zer estilo-ezaugarri dituzten, dituzten anekdotak... Behin bide horretan, bestalde, ezinbestean egingo dugu topo Euskal Herrian jaiotako zenbait zinema-konpositorerekin. Seguru nago batek baino gehiagok ustekabe atsegina izango duela.

## **KONTAKETA**

Gizakiak premia sentitzen du zein aldartetan dagoen adierazteko, eta, ahalegin horretan, bakoitzak eskura dituen edo seguru sentiarazten duten moduak edo/eta adierazpideak baliatzen ditu.

Konzertua, berez, 11 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Irakasleek ondo dakitenez, adin-tarte horretan eraikitzen dugu gure nortasuna, era guztietako etengabeko aldaketek baldintzatuta. Erabakiak hartu beharra eguneroko kontua bihurtzen da, eta horrek bertigo eta ezinegon handia sortzen du nerabearengan. Aldi berean, barne-gatazkak eta harreman-gatazkak ere eguneroko kontuak dira harentzat.

Arte-adierazpideek bidea eskaintzen dute gatazka-egoerak, premiak, zalantzak, nahiak... komunikatzeko. Idatzizko testu baten ahal literarioek, adibidez, aukera ugari ematen dute ideia eta sentimendu askori forma emateko, haiek transmititzeko, eta hori guztia pribatutasuna eta intimitatea eskaintzen dituen era batean.

Beste alde batetik, une askotan, hitzen bidez esan ezin litekeena adieraztea lortzen du musikak.

### **Jarduera**

- Proposatu ikasleari testu labur bat idatz dezan:
  - a) Bizitzaren une jakin batean eragin dioten edo gaur egun eragiten dioten emozioen esparrua gai hartuta.
  - b) Fernando Velázquezek *Lo imposible (Ezinezkoa)* filmerako konposatutako soinu-bandaren “Se veía tan feliz” (“Hain pozik sentitzen zen”) pieza gai hartuta (<https://www.deezer.com/es/album/6213000>) 17. audioko 0’00”-3’32” tarte, piano-soloaren sarrerarekin bat egiten duena).
- Aztertu proposatutako musika-pieza: instrumentazioaren ezaugarriak eta funtzioak.
- Entzun musika-pieza, eta bereizi soinu-planoak eta dinamikak.
- Egin proposamen bat testua eta musika lotzeko musika-pieza honetan; jarri arreta berezia hitza sartu ez dadin dinamika gogorreko soinu-planoetan.

Animatu zaitetze eta bidali zuen testuak helbide honetara: [zinemamusikatuz@gmail.com](mailto:zinemamusikatuz@gmail.com).

Jasotako testuen artean, bat aukeratuko dugu, kontzertu-egunean hura aurkeztu eta interpretatzeko. Hortaz, kasu honetan, testuak bidaltzeko epea **urtarrilaren 31n** amaituko da.



## **AMAIERA**

Zuek ere kreditu-tituluak bukatu arte gelditzen zarete?

Filma bukatu ondoren entzuten den musika berez da interesgarria: askotan, filmean zehar agertutako piezak entzuteko beste aukera bat izaten da.

Irudiak amaitu direnez, musika nabarmenagoa egiten da, eta aukera dago arreta handiagoz entzuteko, merezi duen bezala.

## **Jarduera**

- Aztertu nolakoa den irudiaren eta musikaren arteko indar-oreka, eta adierazi ea egindako lanak balio izan dizuen konturatzeko oso interesgarria izan daitekeela eszenei modu aktiboan erreparatzea.
- Hausnartu ea zergatik ote den zinema-konpositoreak hain ezezagunak izatea zuzendariekin eta aktoreekin konparatuta, kontuan izanda norainoko ekarpena egiten dion soinu-bandak filmari, gehien-gehienetan.